



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

VII. legegintzaldia

Iruña, 2010eko urtarrilaren 29a

7. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### F SAILA:

##### **Galderak:**

- Galdera, Foruzaingoaren buruari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (3. or.).
- Galdera, oihan biomasa ekoizteko gaitasunari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (4. or.).
- Galdera, Nafarroako Antzerki Eskolarako egoitza egonkor bat bilatzeko zuzemenei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (5. or.).
- Galdera, 2008tik 2011ra bitarteko Nafarroako Hirugarren Plan Teknologikoari dagozkion kontusailei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (7. or.).
- Galdera, Nafarroako III. Enplegu Planaren ebaluazioari eta balorazioari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (7. or.).
- Galdera, hogeita bost urte baino gutxiago izateagatik oinarritzko errenta ukatu den kasuei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (8. or.).
- Galdera, Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako Departamentuak adingabeak babesteko baliabideak handitze eta hobetze aldera egin dituen jarduketei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (8. or.).
- Galdera, Nazioarteko Garapenerako Lankidetzako kontusailari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (10. or.).
- Galdera, Garapenerako Lankidetzako gastua kalkulatzeko aplikatzen diren formulei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (11. or.).

#### G SAILA:

##### **Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- Foru parlamentariak bilkuretara bertaratzearen truke jasoko dituzten ordainsariak eta parlamentu-taldeak jasoko dituzten sari ekonomikoak, 2010eko ekitaldirako (12. or.).
- Foru parlamentarien ordainsariak 2010eko ekitaldirako (13. or.).
- Nafarroako Parlamentuko lehendakariaren eta Parlamentuko behin-behineko langileen ordainsariak 2010eko ekitaldirako (13. or.).
- Nafarroako Parlamentuko Erregistro Orokorren ordutegi ofiziala 2010erako (14. or.).

- Nafarroako Parlamentuko langileen lan egutegia 2010erako (14. or.).
- Nafarroako Orkestra Sinfonikoaren kontuei buruzko fiskalizazio-txostena, Comptos Ganberak egina (15. or.).

---

**F saila:**  
**GALDERAK**

---

**Galdera, Foruzaingoaren buruari buruzkoa.****FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Amanda Acedo Suberbiola andreak galdera egin du Foruzaingoaren buruari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2009ko irailaren 14ko 88. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2009ko azaroaren 6an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**ERANTZUNA**

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Amanda Acedo Suberbiola andreak galdera egin du Foruzainburuari lotutako zenbait gairi buruz (PES-217/09 zenbakiarekin sailkaturiko galdera). Hona Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariaren erantzuna:

Galdegile den parlamentari andreak bere garaian aurkezturiko ahozko nahiz idatzizko galderei emandako erantzunean adierazi bezala, gauzaturiko administrazio-prozedura –zeina baitagokio foruzainburuak postu-igoerako ikastaro bat egiteko baimenari eta baimen hori beharrezkoa izan zeneko aldian foruzainburuaren balizko ordezkari egiteari– da Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariak emandako azaroaren 8ko 517/2007 Foru Agindutik eta otsailaren 8ko 48/2008 Foru Agindutik eratorritakoa (horien kopia bat erantsi da). Foru agindu horiek eman ziren indarreko araudiaren arabera izapide eta jardunbideei jarraituz, eta zerbitzu juridiko eskudunek kasu bakoitzean adierazitakoari men eginez.

Beraz, eta bere garaian esplikatu zen bezala, 2007ko azaroaren 9tik 2008ko otsailaren 10era bitarteko epean, Alfonso Fernández Díez jaunak ez zituen formalki bete Nafarroako Foruzaingoaren burutza-eginkizunak eta, horrenbestez, aldi horretan ez zuen inolako ordainsaririk jaso Foru Komunitateko Administrazioarengandik.

Gauza jakina denez, Foruzainburuak igoera-ikastaroa egin eta emaitza asegarriak erdietsi zituena, komisario nagusi kategoriara igo baitzen. Ezinezkoa da aprobetxamenduari eta kalifikazioei buruzko dokumentazioa ematea, interesdunaren espediente pertsonaleko parte delako eta Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioarena ez den administrazio-espediente bat osatzen duelako.

Horri buruz, komeni da aipatzea ezen, martxoaren 23ko 8/2007 Foru Legeko 27. artikuluan ezarritakoarekin bat, Foruzainburuari aplikatzekoa zaiola zuzendari nagusien araubide juridikoa eta, beraz, ezin zaizkiola aplikatu lanaldi, opor, lizentzia eta baimenei buruz funtzionario publikoei aplikatzekoak diren izaera orokorreko arauak.

Nolanahi ere, eta azaldutakoarekiko koherentziaz, plantilla organikoan –Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariaren ekainaren 19ko 247/2008 Foru Aginduaren bidez xedatu zen argitara zedila, eta azaltzen du plantillaren 2007ko abenduaren 31ko egoera eta langileen zerrenda– foruzainburu-postua hutsik agertzen da.

Nafarroako Gobernuaren Ondare Zerbitzuak, Barne Zuzendaritza Nagusiak hala eskatuta, eskuera ipintzen dizkio zuzendaritza horri eta, zehazki, Foruzaingoari, zenbait higiezin, Foruzaingoak bere eginkizunetan dituen beharrianetarako; horien artean, segurtasun pertsonalaren alorrean, eta kasua bada, ezar litezkeen aurreikuspenen arabera higiezin horiek erabiltzea, mehatxu terrorista eta kasuan objektibaturiko arriskuak aztertu eta gero, beste segurtasun-indar eta -kidego batzuetan eta administrazio publiko guztietako beste goi-kargudun batzuekin gertatu ohi den bezala.

Nolanahi dela ere, eta ikastaroan parte hartu zeneko epean, aipaturiko kasuan ez zen ordaindu ikastaroa egitearen ondoriozko inolako gasturik, salbu eta segurtasunarekin berarekin zerikusia zeukatenak, beste edozein kargudun publikorekin edo babes-neurriak dauzkaten pertsonekin gerta-

tu ohi den bezala, aintzat harturik ezen, begi-bistakoa denez, segurtasun-neurriak hedatzen direla bai jardun edo funtzio publikora, bai eta jarduera pribatuetera ere.

2008 eta 2009ko ekitaldietan, foruzainburua etenik gabe jardun da bere karguan, legez ezarritako araubide juridikoari jarraituz, salbu eta aipaturiko epean eginiko ikastaroari dagokionez, eta alde batera utzita oporregatik, norberaren gauzengatik, gaixotasunagatik edo karguaren jardunean Nafarroatik kanpora joan behar izateagatik beste

toki batzuetan, normala denez, egon deneko aldiak. Kasu horietan, indarreko araudiak ezarritako ordezen-modua aplikatu da, hari dagokion goimailako zuzendaritza ezertan galarazi gabe.

Hori jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 186. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2009ko azaroaren 2an

Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilaria:  
Javier Caballero Martínez

## **Galdera, oihan biomasa ekoizteko gaitasunari buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak galdera egin du oihan biomasa ekoizteko gaitasunari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2009ko azaroaren 13ko 113. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2009ko abenduaren 1ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **ERANTZUNA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak galdera egin du Nafarroak oihan biomasa ekoizteko duen ahalmenari buruz (PES-303). Hona hemen Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariaren erantzuna:

Baldin eta aintzat hartzen baditugu, Nafarroako Basoei buruzko Planean zehazturiko eskualde bakoitzerako, espezie bakoitzeko dauden oihan-azalerak, bai eta urteroko zur-hazkundeak ere (m<sup>3</sup>/Ha/urte-tan neurtuak), dagoen zur-biomasa kantitate potentzialari buruzko honako aurreikuspenak ondorioztatzen dira: Kantaurialdea

(492.873 m<sup>3</sup>/urte), Pirinioaldea (676.033 m<sup>3</sup>/urte), Erdialdea eta Iruñerria (367.281 m<sup>3</sup>/urte) eta Erribera aldea (68.993 m<sup>3</sup>/urte). Gaur egun, moztutako zur eta egurrak, mozketa horien barrenean sarturik oihan-aprobetxamenduak, hobekuntzarako oihan-tratamenduak eta etxerako egurraren aprobetxamendu tradizionalak, urtean 300.000 m<sup>3</sup>koak dira.

Nafarroako Oihan Ondarean urtero potentzialki aprobetxatzeko modukoak diren zur eta egurren kantitatea hauxe da: Urbasako mendilerroa (urtean 10.500 m<sup>3</sup>), Aralarko mendilerroa (urtean 2.500 m<sup>3</sup>) eta Sabaizako finka (urtean 6.000 m<sup>3</sup>). Gainerako oihan-azalera banatuta dago zenbait finkatan, zeinen oihan-espezie nagusia larizio pinua baita. Finka horiek zenbait masa-azterlan dauzkate, zeinak abiapuntua baitira haien antolamenduari ekiteko. Datozen urteetan zehar finka horiek antolatze ahalegin handia egingen da, eta era horretan aukera izanen dugu eskueran dauden zur eta oihan-biomasako izakinak zenbatekoak diren zehaztasun handiagoz jakiteko.

Hori jakinarazten dut, Parlamentuko Erregelamenduaren 192. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2009ko azaroaren 26an

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria: Begoña Sanzberro Iturriria

## **Galdera, Nafarroako Antzerki Eskolarako egoitza egonkor bat bilatzeko zuzemenei buruzkoa.**

### **FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

María Luisa Mangado Cortes eta Ana Figueras Castellano andreek galdera egin dute Nafarroako Antzerki Eskolarako egoitza egonkor bat bilatzeko zuzemenei buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2009ko azaroaren 6ko 110. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2009ko abenduaren 4an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **ERANTZUNA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko María Luisa Mangado Cortes andreak eta Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteko Ana Figueras Castellano andreak galdera egin dute Nafarroako Parlamentuak onetsitako erabaki bati buruz –haren bidez, Nafarroako Gobernua premiatu zuen Nafarroako Antzerki Eskolako arduradunekin lankidetzan konponbide bat azter dezan, egoitza egonkor bat izate aldera– (PES-00298). Hona Nafarroako Gobernuko Hezkuntzako kontseilariaren erantzuna:

Hala legegintzaldi honetan nola aurreko bietan, parlamentu-galderen eta legebiltzarrean eginiko lan bileren kariatara, Hezkuntza Departamentuak behin baino gehiagotan azaldu ahal izan die foru parlamentariei zein den Nafarroako Antzerki Eskolaren egoera, zer ikasketa ematen diren bertan eta zer aurreikuspen dituen departamentuak arte dramatikoko irakaskuntzez eta eskolaren etorkizunaz.

Hezkuntza Departamentuak, Parlamentua Nafarroako Antzerki Eskolaren etorkizunaz kezkatuta dagoela jakitun, zenbait ekimen abiarazi ditu, egoitza egonkor bat bilatzeari eta eskolak egiten duen hezkuntza-eskaintzari dagokienez, eskolak bizi dituen zailtasunak sakon aztertze aldera eta egungo egoerari eman dakizkiokeen irtenbideak bilatze aldera.

Hezkuntza Departamentua harremanetan izan da Nafarroako Antzerki Eskolako arduradunekin, eta zenbait lan bilera egin ditugu hobeto ezagutzarren egoitza gisa erabiltzen duten lekuaren egoera zehatza eta haien eskakizunak eta iritziak

entzuteko eta elkarren artean aztertzeke zer egin daitekeen.

Eskolako arduradunek bere kezka azaldu diote Hezkuntza Departamentuari, haien lanerako erabiltzen dituzten lokalak erabiltzeko hitzarmena nahiz alokairua amaitzeak taldeari ekarriko lizkiokeen zailtasunak direla eta; izan ere, ez dute lokal horiek erosteko modurik.

Bizi dugun egoera ekonomikoak, ordea, gastuen arloan lehentasunak ezartzera behartzen du Hezkuntza Departamentua, eta lokal bat erosteko finantzaketari dagokionez kontuan hartu behar da egungo egoeran lehentasuna eman behar zaiela irakaskuntza arautuen beharrazane.

Eskolaren hezkuntza arloko eskaintza dela-eta aztertu da zer aukera ematen duen arte dramatikoko ikasketei dagokienez Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organiko berriak, denon artean bilatze aldera zein izanen litzatekeen esparru egokia Nafarroako Antzerki Eskolak aurrerabidea egin dezan bertan ematen diren ikasketen aitortza ofiziala lortu ahal izateko.

Legeak, baina, bi bide baino ez ditu ematen: arte eszenikoekin lotutako lanbide heziketako ikasketak ezartzea edo arte dramatikoko goi mailako titulua ematen duen Arte Dramatikoko Eskola sortzea.

Beste inoiz ere adierazi den bezala, eta kontuan hartuta egungo egoeran ez dela egokia bigarren aukera hori –ikasle gutxi ditu eta zaila da abian jartzea eta jardunean egotea Arte Irakaskuntzen Goi Mailako Ikastetxe bat bere berezitasun guztiekin–, sakonago aztertu da Lanbide Heziketako ikasketen beste bide hori.

Hezkuntzari buruzko Lege Organikoko hogeita hamahirugarren xedapen gehigarrian jasotzen den legez, Espainiako Gobernuari dagokio arte eszenikoekin lotutako erdi mailako eta goi mailako lanbide heziketako irakaskuntzak ezartzea.

Une honetan, ondokoek eragiten digute kezka arte eszenikoekin lotutako lanbide heziketako irakaskuntzak abian jartzeko aukerari dagokionez: Lehenik eta behin, denbora aldetiko mendekotasuna; izan ere, aurrena Ministerioak garatu behar du Estatuko legedia, eta ondoren hasiko dira autonomia erkidegoak nork berea garatzen. Bigarrenik, Lanbide Heziketako teknikari eta goi mailako teknikari tituluaren definiziotatik beragatik, zeinak arte

eszenikoen laguntza tekniko gisa baitaude pentsatuta kasu honetan, autonomia erkidegoak % 45eko marjina estua baizik ez luke izanen (gainontzeko % 55 Ministerioak ezartzen du), titulazioaren garapena osatu ahal izateko eta titulazioan interpretazioari buruzko zenbait alderdi sartu ahal izateko, horixe baita Nafarroako Antzerki Eskolaren egungo zeregina eta egin lezakeen hezkuntza lana. Titulazio tekniko baten berezko definizioan kontzeptualki ondo sartzen ez diren interpretazioalderdi horiek jasotzeak hirugarren zailtasun bat sortzen digu antolamenduaren ikuspuntutik; izan ere, titulazioa Lanbide Kualifikazioen Katalogo Nazionalari egokitu behar zaio betiere, eta Nafarroako Antzerki Eskola prestatuta egon beharko litzateke ikastetxeen gutxieneko eskakizunei buruzko kasuko araudia betetzeko, bai eta irakasleen titulazioari eta kualifikazioari buruzkoa ere, baldin eta irakaskuntza horien barruan ezartzen diren moduluak bere gain hartu nahi baditu.

Nafarroako Antzerki Eskolaren ordezkariekin izandako bileretan erabaki zenez, Hezkuntza Departamentuak aztertzen jarraituko du ea modurik dagoen antzez-interpretazioaren zenbait alderdi sartzeko Lanbide Heziketako titulazioaren batean, Ministerioak arte eszenikoei buruzko titulazio horiek definitzen dituenean, bide hori benetan zaila dela jakitun, bai definitzerakoan (arestian azaldu-

takoarengatik) bai eskolak berak egin beharko litzuzkeen aldaketengatik.

Hezkuntza Departamentuak harremanetan jarraitzen du Ministerioarekin, legegintza arloan aurreikusten diren balizko aurrerabideen berri izateko, eta harremanetan jarraitzen du orobat beste autonomia erkidegoren batekin, Katalunia kasu, auzi horri buruzko interesa erakutsi duena eta gisako hezkuntza-esperientziaren bat abia jarri nahi duena.

Finean, Hezkuntza Departamentuak lanean jarraitzen du Nafarroako Foru Komunitateak antzerki-ikasketen eskaintzari eutsi ahal izan diezaien eta ikasketa horiek halako moduan egin daitezten non interesdunek behar bezalako probetxua atera diezaieten eta haien ingurunearen gizarte-nahiz kultura-testuinguruari egoki dakizkion, Nafarroan erantzun egokia emate aldera arlo horretako prestakuntza artistikoaren inguruan dagoen eskaerari.

Hori jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamendua betez.

Iruñean, 2009ko abenduan

Hezkuntza kontseilaria: Alberto Catalán Higuerras

## **Galdera, 2008tik 2011ra bitarteko Nafarroako Hirugarren Plan Teknologikoari dagozkion kontusailei buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak galdera egin du 2008tik 2011ra bitarteko Nafarroako Hirugarren Plan Teknologikoari dagozkion kontusailei buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2009ko azaroaren 20ko 115. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2009ko abenduaren 4an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **ERANTZUNA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari José Ángel Agirrebengoa Imaz

jaunak galdera egin du Nafarroako 2008-2011 Hirugarren Plan Teknologikoari buruz (PES-307/09). Hona Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu kontseilariaren erantzuna:

Eginiko eskaerari erantzunez, honekin batera doa Nafarroako 2008-2011 Hirugarren Plan Teknologikoko kontusailak jasotzen dituen dokumentua, eta horrenbestez, argituztat jotzen ditugu adierazitako gaiak.

Iruñean, 2009ko abenduaren 9an

Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu kontseilaria: José María Roig Aldasoro

(Oharra: Aipatu eranskina foru parlamentarien eskura dago Legebiltzarreko Zerbitzu Orokorretako bulegoetan.)

## **Galdera, Nafarroako III. Enplegu Planaren ebaluazioari eta balorazioari buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak galdera egin du Nafarroako III. Enplegu Planaren ebaluazioari eta balorazioari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2009ko azaroaren 20ko 115. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2009ko abenduaren 4an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **ERANTZUNA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak gal-

dera egin du Nafarroako III. Enplegu Planaren Koordinazio, Ebaluazio eta Jarraipen Batzordeak ebaluazioa eta balorazioa egiteari buruz (PES-309/09). Hona hemen Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu kontseilariaren erantzuna:

Ikusirik galderaren edukia bat datorrela 251/09 zenbakiko informazio-eskariaren xedearekin, honekin batera igortzen dugu Parlamentuari berriki, 2009ko azaroaren 14an, bidalitako erantzuna.

Iruñean, 2009ko abenduaren 9an

Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu kontseilaria: José María Roig Aldasoro

(Oharra: Aipatu eranskina foru parlamentarien eskura dago Legebiltzarreko Zerbitzu Orokorretako bulegoetan.)

## **Galdera, hogeita bost urte baino gutxiago izateagatik oinarrizko errenta ukatu den kasuei buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Ioseba Eceolaza Latorre jaunak galdera egin du Hogeita bost urte baino gutxiago izateagatik oinarrizko errenta ukatu den kasuei buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2009ko urriaren 30eko 106. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2009ko abenduaren 15ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **ERANTZUNA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Ioseba Eceolaza Latorre jaunak

galdera egin du eskatzaileak hogeita bost urte baino gutxiago izateagatik oinarrizko errenta ukatu den kasuei buruz (PES 288/09). Hona hemen Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako kontseilariaren erantzuna:

2009ko ekitaldi honetan oinarrizko errentarako 77 eskaerari eman zaie ezezkoa, ez zutelako betetzen 25 urte baino gehiago izatearen edo 25 urte baino gutxiago izanik familia-unitate beregaina osatzearen baldintza, oinarrizko errenta arautzen duen apirilaren 19ko 120/1999 Foru Dekretuak prestazio hori eskuratu ahal izateko betekizun gisa ezartzen duena.

Iruñean, 2009ko azaroaren 27an

Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako kontseilaria: María Isabel García Malo

## **Galdera, Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako Departamentuak adingabeak babesteko baliabideak handitze eta hobetze aldera egin dituen jarduketei buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

José Javier Monzón Romé jaunak galdera egin du Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako Departamentuak adingabeak babesteko baliabideak handitze eta hobetze aldera egin dituen jarduketei buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2009ko urriaren 30eko 2009ko urriaren 30eko 106. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2009ko abenduaren 15ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **ERANTZUNA**

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari José Javier Monzón Romek galdera egin du jakiteko zer jarduketa egin dituen Nafarroako Gobernuak egun foru erki-

degoan adingabeak babestearen eta onbideratzearen arloan dauden baliabideak zabaltzeko eta hobetzeko, koordinazio-tresnak optimizatzeko eta arlo honetan foru erkidegoan garatzen diren politikak ebaluatzeko sistemak hobetzeko (PES 292/09). Hona Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako kontseilariaren erantzuna:

Familiaren, Haurren eta Kontsumoaren Zuzendaritza Nagusiak, adingabeen babesaren arloko unitate administratibo eskuduna baita, azken urtean zenbait jarduera egin ditu, arlo honetan dagoen zerbitzuen sarea hobetzera bideratuak:

1) Adingabeen zentro bat eraikitzeko obren kontratua izapidetu eta esleitzea, lurzatia urbanizatzea eta Ilundaingo (Aranguren) hiri-gunea hobetzea.

Kontratu hori Nafarroako Mendekotasun Agenciaren zuzendari kudeatzailearen ekainaren 11ko



1824/2008 Ebazpenaren bidez esleitu zen. Kontratua 2008ko uztailaren 17an formalizatu zen.

Prezioa 4.155.298,21 eurokoa da (BEZik gabe), eta hura exekutatzeko epea, berriz, 22 hilabetekoa, zuinketa-akta egin eta obrak hasi eta biharamunetik kontatzen hasita.

2) Plazen kopurua handitzea egoitzako arreta emateko zentroetan eta behaketa eta harrerakoetan, dauden behar guztiak asetzeko:

a) Babesgabetasun egoeran dauden eta gatazka sozialeko profila duten adingabeentzako egoitza-harrerakok 36 plazen kudeaketa.

Kontratua Familiaren, Haurren eta Kontsumoaren zuzendari nagusiaren azaroaren 18ko 2173/2009 Ebazpenaz gauzatu zen; izan ere, "Navarra Sin Fronteras" elkartearekin egin zen kontratua, 5.470.555,34 eurotan. Kontratuak 2010eko abenduaren 31ra arteko iraupena du.

b) 14 eta 18 urte bitarteko adingabeentzako "Beloso Zolina" Behaketa eta Harrera Zentroan bost plaza gehitzea. Zerbitzua hamar postu izatek hamabost postu izatera pasa da. Horretarako, "Ilundáin Haritz Berri" Fundazioarekin hasiera batean izenpetu zen hitzarmena aldatu zen, Familiaren, Haurren eta Kontsumoaren zuzendari nagusiaren urriaren 13ko 1911/2009 Ebazpenaren bitartez. Kontratua, berriz, 2009ko urriaren 19an formalizatu zen.

Kontratuaren guztizko aurrekontua 2.773.333,70 eurokoa da, eta urteko igoera, berriz, 464.924,80 eurokoa.

c) Argaray Orientazio eta Harrera Zentroan bost postu gehiago jartzea. Zentro horrek 0 eta 14 urte bitarteko adingabeak artatzen ditu. 2009ko urrian, errekurtsio hau zabaltzeko xedea duen espediente izapidetzen hasi da. Haren xedea da egungo 12 postuetatik 17 postuetara. Helburua ez da soilik egin beharreko zabaltzea egitea, baizik eta baliabidea dibertsifikatzea, bai adinen arabera, bai kasuistiken arabera. Hori dela eta, zabalduko baliabidearen kokapen berria 2010eko lehen hilabeteetan egonen da erabiltzeko moduan.

Aipaturiko zabaltzearen ondorioz baliabidearen kostuak 277.000 eurotan egin du gora.

3) Adingabeak egoitzetan hartzeko zentroak handitzea, Iruñean edo Iruñerrian.

2009an, egoitza-harrerako zerbitzu berri bat jarri zen abian, jokabide-nahaste larriak dituzten eta gizarte-babesgabetasuneko egoeran dauden adingabeei zuzendutako programa garatzeko.

Kontratua "Xilema" enpresarekin egin zen 2009ko martxoaren 24an. Guztizko aurrekontua 2.599.756,30 eurokoa da, eta urteko igoera, berriz, 389.924,64 eurokoa.

4) Autonomia pertsonaleko programa bat sortzea, babes-sistemako adingabeentzat, bi posturekin.

Urteko kostua 48.124,29 eurokoa da ("Asociación Navarra sin Fronteras" elkartearekin izenpetutako kontratuaren barruan sartzen da; kontratu hori 2009ko azaroaren 18an adjudikatu zen).

5) Babesgabetasun sistemako adingabeentzako autonomia eta desinstituzionalizatzeko prozesuak laguntzea. Aurrekontuak, 2009rako, 117.936 eurotan egin du gora. Guztizko aurrekontuak 190.036 euro egiten du.

6) Profesionalen kopurua handitzea familiako esku-hartze zerbitzuan eta neurri judizialak ingurune irekian betearazteko zerbitzuan (nerabeen hezkuntza programa eta ingurune irekiko taldea).

2008an hiru profesioetan egin du gora araubide zabaleko neurri judizialak betetzeko eta nerabeak hezteko taldeak. Horrek berarekin ekarri du 70 neurri erantzun ahal izatea eta nerabeen hezkuntza programako 12 adingabe artatu ahal izatea. 8 profesioetik 11 profesionalera pasatu zen.

Horrek berarekin ekarri du urtero 101.588,73 euroko igoera gertatzea. Berrizturekin izenpetutako kontratuaren guztizko aurrekontuak, berriz, 443.140,19 euro egiten du.

7) 2008ko ekainaren 26an, "Pauma, S.L." enpresarekin Familia Hezkuntzako Programa betetzeko izenpetutako kontratua aldatu zen; izan ere, 1.700 ordutan handitu zen esku-hartzea. Aldaketa horrek suposatu zuen kontratua 38.216 eurotan handitzea.

Aurrerago, Familiaren, Haurren eta Kontsumoaren zuzendari nagusiak kontratua berriz ere aldatu zuen, Familian Esku Hartzeko Programako esku-hartze unitatea aldatzeko, hain zuzen ere ordutatik saiotara iragateko. Gainera, 9.360 saiotan handitu zen 2009rako aurreikusitako saioen kopurua (urteko 23.454,55 esku-hartze saiotatik 32.814,55 saiotara pasatu da). Horrek berarekin ekarri du aldi berean 50 familia artatzea 34 familia artatu beharrean, ordura arte egiten zen bezala. Aldaketa hori 2009ko ekainaren 26an formalizatu zen, eta suposatu zuen kontratuaren aurrekontua 195.156 eurotan handitzea.

Koordinaziorako tresnak optimizatzeari dagokionez, hori ere aipatzen baita egindako galderan, honako jarduerak aipatu behar ditugu:

- Nafarroako 2008-2012 gizarte zerbitzuen sektoreko plan estrategikoaren garapenean parte hartzea, babesgabetasun edo erreforma egoeran dauden adingabeei arreta emateari dagokionean.

- Familiaren, Haurren eta Kontsumoaren Zuzendaritza Nagusiko Haur eta Nerabeentzako Sustapen, Laguntza eta Babesaren Zerbitzua lankidetzan aritzea Gizarte Gaien eta Garapenerako Lankidetzaren Zuzendari Nagusiko Kalitate eta Ikuskapen Zerbitzuarekin, Nafarroako Gizarte Zerbitzuen Lehenengo Kalitate Plana egiteko (2008ko urtarrila).

- Ikuskapeneko Lehen eta Bigarren planak garatzen laguntzea (urtarrilaren 21eko 16/2008 Foru Agindua, 2008rako Nafarroako Gizarte Gaien arloko Ikuskapen Plana onesten duena).

Arlo teknikoan lankidetzan aritzen gara egoitza harrera kudeatzeko kontratatutako entitateekin, honako programei dagokionez:

– Hitzarmenak teknikoki eta ekonomikoki betetzea. 2008an, “Nuevo Futuro”k kudeaturiko zentroak ikuskatu ziren.

– Finantzaketa anitzaren gaineko kontrola. “Asociación Navarra Sin Fronteras” entitatea ikuskatu zen 2008an, eta 2009ko azaroan “Ilundáin” Fundazioa ikuskatzen hasi da.

- Parte hartu da adingabeentzako arretaren arloko zerbitzuak baimendu eta homologatzeari buruzko erregulazioaren gaineko araugintza proiektua prestatzen, Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 14ko 15/2006 Foru Legea betetzeko.

- Lizarra ingururako Gizarte Zerbitzuen Zentroa sortzeko parte-hartze teknikoa (Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 14ko 15/2006 Foru Legeko 32. artikulua).

- Oinarrizko Osasun Laguntzako etorkizuneko koordinazio batzordea sortzeko lanetan parte hartzea.

Iruñean, 2009ko azaroaren 27an

Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako kontseilaria: María Isabel García Malo

## **Galdera, Nazioarteko Garapenerako Lankidetzak kontusailari buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Ioseba Eceolaza Latorre jaunak galdera egin du Nazioarteko Garapenerako Lankidetzak kontusailari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2009ko azaroaren 6ko 110. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2009ko abenduaren 15ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **ERANTZUNA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Ioseba Eceolaza Latorre jaunak Nazioarteko Garapenerako Lankidetzak kontusailari buruzko galdera egin du (PES 296-09). Hona hemen Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako kontseilariaren erantzuna:

Nazioarteko Garapenerako Lankidetzak izeneko 900001 91200 4819 143102 kontusaila % 100 betetzea aurreikusten da.

Iruñean, 2009ko abenduaren 1ean

Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako kontseilaria: María Isabel García Malo

## **Galdera, Garapenerako Lankidetzako gastua kalkulatzeko aplikatzen diren formulei buruzkoa.**

### **FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Ioseba Eceolaza Latorre jaunak galdera egin du Garapenerako Lankidetzako gastua kalkulatzeko aplikatzen diren formulei buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2009ko azaroaren 6ko 110. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2009ko abenduaren 1ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **ERANTZUNA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Ioseba Eceolaza Latorre jaunak galdera egin du garapenerako lankidetzari buruzko gastua kalkulatzeko aplikatzen den formulari buruz (PES-297). Hona Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariaren erantzuna:

Nafarroako Parlamentuak ezarri zuen, Osoko Bilkurak 1994ko urriaren 25ean onetsi zuen erabaki baten bidez, garapenerako lankidetzari buruzko gastua kalkulatzeko aplikatu beharreko formula. Formula horren arabera, Gastuen Aurrekontuko ehuneko bat bideratzen da garapenerako lankidetzara, behin finantza-gastuak, Estatuarentzako ekarpena eta toki entitateentzako transferentziak kendu ondotik. Formulak ez zuen aldaketarik izan 2005ean. Urte horretan, 2006ko Nafarroako Aurrekontu Orokorren proiektua prestatzen ari zenean, zerga-gastuak Nafarroako Aurrekontu Orokorretan sartzeak eragindako aurrekontu-errealitate berrira egokitu zen kalkulu hori. Hartara, Nafarroako Parlamentuak ezarritakoari jarraikiz, garapenerako lankidetzarako ehuneko aurrekontu garbi erabilgarrian oinarrituta kalkulatu zela ziurtatu zen.

Iruñean, 2009ko abenduaren 11n

Bigarren lehendakariorde eta Ekonomia eta Ogasuneko kontseilaria: Álvaro Miranda Simavilla

---

**G saila:**  
**TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA**

---

**Foru parlamentariak bilkuretara bertaratzearen truke jasoko dituzten ordainsariak eta parlamentu-taldeek jasoko dituzten sari ekonomikoak, 2010eko ekitaldirako.**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko urtarrilaren 26an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Kontu-hartzailatza eta Gai Ekonomikoetarako zerbitzuburuak eginiko txostena ikusirik, eta Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 15., 35. eta 37. artikuluetan xedatuari jarraikiz, hau ERA-BAKI DA:

**1.** Foru parlamentariak bilkuretara bertaratzearen truke jasoko dituzten ordainsariak eta parlamentu-taldeek jasoko dituzten sari ekonomikoak onestea, 2010eko urtarrilaren 1etik aurrerako eraginez. Haien zenbatekoak hauek dira:

A) Foru parlamentariak bilkuretara bertaratzearen truke jasoko dituzten ordainsariak:

– Dietak: 148,00 euro bertaratze bakoitzeko, helbidea Iruñean edo Iruñetik 25 kilometrora bitarteko herrietan daukaten foru parlamentariarentzat.

– Dietak: 175,00 euro bertaratze bakoitzeko, helbidea Iruñetik 25 kilometro baino gehiagora dauden herrietan daukaten foru parlamentariarentzat.

– Kilometro-ordaina: Kilometro bakoitzeko 0,31 euro.

B) Parlamentu-taldeentzako ordainsariak:

a) Dirulaguntza finkoa: 8.341,00 euro hilabeteko eta parlamentu-taldeko.

b) Dirulaguntza aldakorra: Kontzeptuon baturaren arabera zenbatekoa:

– Funtzionamendu gastuak: 1.507,00 euro hilabeteko eta parlamentariako.

– Antolaketa gastuak: 1.152,00 euro hilabeteko eta parlamentariako.

– Langile eta jarduera gastuak: 4.301,00 euro hilabeteko eta parlamentu-taldeko bost parlamentari bakoitzeko edo zatikiko.

**2.** Bidaia ofizialengatik ordainin zenbatekoa ezartzea, 2010eko urtarrilaren 1etik aurrerako eraginez: Nafarroatik kanpora eginiko bidaietan, eguneko 107,77 euro, eta, atzerrira eginiko bidaietan, eguneko 170,14 euro.

**3.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2010eko urtarrilaren 26an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

## Foru parlamentarien ordainsariak 2010eko ekitaldirako.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko urtarrilaren 26an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Kontu-hartzailletza eta Gai Ekonomikoetarako zerbitzuburuak foru parlamentarien ordainsariei buruz eginiko txostena ikusirik, eta foru parlamentarien ordainsariei buruzko arauetan ezarritakoarekin eta Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 15., 17. eta 37. artikuluetan xedatutakoarekin bat, hau ERABAKI DA:

1. Lanaldi osoko araubideari atxikitako Mahaiko eta Eledunen Batzarreko kideak diren foru parlamentarien urteko ordainsari gordina, 2010. urterako, 60.436,04 eurokoa izanen da.

2. Lanaldi osoko araubideari atxikitako gainerako foru parlamentarien urteko ordainsari gordina, 2010. urterako, 53.142,04 eurokoa izanen da.

3. Lanaldi osoko araubideari atxiki gabeko Mahaiko eta Eledunen Batzarreko kideak diren foru parlamentarien urteko ordainsari gordina, 2010. urterako, 45.326,96 eurokoa izanen da.

4. Lanaldi osoko araubideari atxiki gabeko gainerako foru parlamentarien urteko ordainsari gordina, 2010. urterako, 39.856,46 eurokoa izanen da.

5. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2010eko urtarrilaren 26an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

## Nafarroako Parlamentuko lehendakariaren eta Parlamentuko behin-behineko langileen ordainsariak 2010eko ekitaldirako.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko urtarrilaren 26an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Kontu-hartzailletza eta Gai Ekonomikoetarako zerbitzuburuak Nafarroako Parlamentuko lehendakariaren eta Parlamentuko behin-behineko langileen ordainsariei buruz eginiko txostena ikusirik, eta Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 37. artikuluan xedatutakoarekin bat, hau ERABAKI DA:

1. Lehendakariaren 2010. urteko ordainsari gordina 79.553,74 eurokoa izatea.

2. Lehendakaritzako Kabineteko buruaren 2010. urteko ordainsari gordina 54.444,46 eurokoa izatea.

3. 2010eko urtarrilaren 1etik aurrerako eraginez, behin-behineko, hau da, dagozkien ordainsariak ezarri arte Nafarroako administrazio publikoen funtzionarioei, estatutupeko langileei eta lan-kontratudunei, hauek izanen dira behin-behineko langile hauen 2010. urteko ordainsari gordinak:

– Lehendakaritzako idazkaria: 35.602,70 euro.

– Mahaiko kideen idazkaria: 28.629,72 euro.

– Parlamentu-taldean laguntzaileak: 28.629,72 euro.

4. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2010eko urtarrilaren 26an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

## Nafarroako Parlamentuko Erregistro Orokorraren ordutegi ofiziala 2010erako.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko urtarrilaren 26an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Parlamentuaren Erregelamenduko 107. artikuluan ezarritakoari jarraikiz, ERABAKI DA:

**1.** Ezartzea Nafarroako Parlamentuko Erregistro Orokorraren ordutegi ofiziala 2010. urterako hauxe izanen dela:

### Ohiko bilkuraldiak:

– Astelehenetik ostegunera:

09:00etatik 14:30era.

17:00etatik 19:00etara.

– Ostirala: 09:00etatik 14:30era.

– Larunbatetan: itxita.

Abenduaren 24an itxita egonen da, eta balio-gabea izanen da ondorio guztietarako.

### Bilkuraldien arteko aldia:

– Astelehenetik ostiralera:

09:00etatik 14:00etara.

– Larunbatetan: itxita.

– Uztailearen 5ean, 6an, 7an, 8an, 9an, 12an, 13an eta 14an itxita egonen da, eta balio-gabeak izanen dira ondorio guztietarako.

**2.** Baliogabeak izanen dira, halaber, igandeak eta Nafarroako Foru Komunitaterako eta Iruñerako ezarritako jaiegunak.

**3.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2010eko urtarrilaren 26an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

## Nafarroako Parlamentuko langileen lan egutegia 2010erako.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko urtarrilaren 26an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Legelari Nagusiaren txostena ikusirik, Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatutuko 37. artikuluan ezarritakoari jarraikiz, ERABAKI DA:

**1.** Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko langileen 2010eko egutegia onetsi da. Hauexek izanen dira asteburutik kanpoko jaiegunak eta egun bereziak:

– Uztailearen 7a, 8a, 9a, 12a, 13a eta 14a: sanferminetako jaiegunak.

– Uztailearen 5a eta 6a: jaiegunak.

Gainerako jaiegunak izanen dira Foru Komunitateko Administrazioarako oro har ezarritakoak.

**2.** Ohiko lanaldia egun indarra duen berbera izanen da, astelehenetik ostiralera.

Urtarrilean, lanaldia 08:00etatik 15:00etara bitartekoa izanen da. Sartzeko 07:30a eta 08:30a bitarteko malgutasuna egonen da; ateratzeko, berriz, 14:30a eta 15:30a bitarteko malgutasuna.

Betiere, egunean 7 ordu benetako bete beharko dira lanean.

Abenduaren 24an, lanaldia 08:00etatik 12:00etara bitartekoa izanen da.

Uztailean, abuztuan eta irailaren lehendabiziko hamabostaldian lanaldia 08:00etatik 14:30era bitartekoa izanen da. Sartzeko 07:30a eta 08:30a bitarteko malgutasuna egonen da; ateratzeko, berriz, 14:00ak eta 15:00ak bitarteko malgutasuna. Betiere, egunean 6 ordu eta 30 minutu bete beharko dira lanean.

**3.** Gainerako egunetarako lan txanda hauek izanen dira langile guztiek bete beharrekoak, talde bakoitzaren berezitasunak kontuan harturik:

a) Goizeko txanda.

b) Goiz eta arratsaldeko txanda.

c) Arratsaldeko txanda.

**4.** Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2010eko urtarrilaren 26an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

## Nafarroako Orkestra Sinfonikoaren kontuei buruzko fiskalizazio-txostena, Comptos Ganberak egina.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko abenduaren 21ean eginiko bilkuran, erabaki zuen Comptos Ganberak Nafarroako Orkestra Sinfonikoaren kontuei buruz egindako fiskalizazio txostena argitara dadila agintzea.

Iruñean, 2009ko abenduaren 21ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### Nafarroako Orkestra Sinfonikoaren kontuei buruzko fiskalizazio-txostena, Comptos Ganberak egina

#### AURKIBIDEA

Laburpen exekutiboa (15. or.).

- I. Sarrera (15. or.).
- II. Orkestraren funtzionamendua (16. or.).
- III. Helburua (17. or.).
- IV. Norainokoa (17. or.).
- V. Ondorio orokorrak eta gomendioak (18. or.).

Oharra: aipaturiko eranskinak foru parlamentarien eskura daude Legebiltzarreko Zerbitzu Orokorretako bulegoetan eta ondoko web helbidean hain zuzen:

[www.cfnavarra.es/camara.comptos](http://www.cfnavarra.es/camara.comptos)

#### LABURPEN EXEKUTIBOA

Nafarroako Comptos Ganberak Pablo Sarasate Fundazioaren kontuen fiskalizazioa egin du, Nafarroako Parlamentuak eskatuta.

Fundazio hori Nafarroako Gobernuak eta Santa Zezilia kontzertu-sozietateak eratu zuten, eta bere helburu nagusia da Nafarroako Orkestra Sinfonikoaren kudeaketaz arduratzea.

2008an zehar, fundazioak 62 pertsona (horietatik 51 ziren musikariak) izan zituen langile gisa, eskaini zituen 113 emanaldietarako. Gainera, 539 kontratu egin zizkien 382 pertsonari, guztira 3.041 eguneko iraupena egiten dutenak. Horien helburua ziren osagarri-lanak, errefortzuak eta ordezpeneak. Langileria buruzko aipamena bukatzeko, 116 kontratazio egin ziren, zuzendari, bakarlari eta concertinoenak.

Fundazioak kanpoko profesional batek eginiko auditoria bat dauka, eta bertan iritziaren salbues-

pen bat adierazten da, 363.559,21 euroko zenbatekoa egiten duten funts bereki negatiboak egoteagatik.

Dirusarrera nagusiak Nafarroako Gobernuak eta Iruñeko Udalak eginiko ekarpenak dira, 5 milioi euro egiten dituztenak, eta horiek urteko dirusarreraren ehuneko 79 egiten dute.

Nafarroako Comptos Ganberak honakoa gomendatzen du:

\* Fundazioaren ondare-egoera onbideratzea

\* Aztertzea ea komeni den Nafarroako Gobernuak parte hartzea ondare negatiboa duen fundazio pribatu batean, zeina, de facto, dirulaguntza-aren bitartez kontrola baitezake; partaidetzarekin, nolabaiteko izaera publikoa ematen dio.

#### I. SARRERA

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2008ko maiatzaren 19an egindako bilkuran, ondoko erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

“Ikusirik Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak aurkezturiko idazkia, Comptos Ganberak Nafarroako Orkestra Sinfonikoa sozietatearen kontuei buruz fiskalizazio-txostena egin dezan eskatzekoa, honakoa erabaki da: aipaturiko txostena egin dadin eskatzea.”

Nafarroako Orkestra Sinfonikoa ez da entitate juridiko bat, baizik eta, egiazki, Pablo Sarasate Fundazioaren menpeko orkestrak bere emanaldietan erabiltzen duen izen komertziala da. Fundazio hori 1997an eratu zen.

Pablo Sarasate fundazioa osatzen dute Nafarroako Gobernuak eta Santa Zezilia kontzertu-sozietateak, Nafarroako Foru Zuzenbide Zibilari buruzko Konpilazioko 44. legeak eta hurrengoek xedatuaren babesean.

Fundazioak gaitasun juridiko osoa dauka, eta hauexek dira bere helburuak: Nafarroako konpositore eta interpreteen obra sustatzea; Nafarroako musika-ondarea ikertu, zaindu eta ezagutaraztea; ikastetxeekin lankidetzan aritzea, bereziki musikaren arlokoekin; eta kontzertuak, errezitalak, hitzaldiak eta Nafarroako herritarren musika-kulturaren maila jasotzen laguntzen duten bestelako jarduerak sustatzea.

Bere helburuak betetzeko, fundazioak Santa Zezilia kontzertu-sozietatearen musika-jarduerak

sustatuko ditu (sozietatea Pablo Sarasate orkestraren titularra da), bai eta horrelako jarduerekin bat egin ahal duten musika-elkarte guztienak ere.

Patronatua honakoek osatzen dute: Nafarroako Gobernuak izendaturiko hiru ordezkariak, Santa Zezilia kontzertu-sozietateak hautaturiko beste hiru ordezkariak, musikaren arloan muntadun diren Nafarroako bi pertsona ospetsuk, bata Santa Zezilia kontzertu-sozietateak hautatua eta bestea Nafarroako Gobernuak, eta Iruñeko Udalak hautaturiko beste ordezkari batek.

Hasierako ekarpena egin zuten Nafarroako Gobernuak, eskudirutan bi milioi pezeta helaraziz, eta Santa Zezilia kontzertu-sozietateak, zeinak 24.252.709 pezetan balioetsiriko ekarpena egin baitzuen, bere ondarea osatzen zuten musika-artxiboa eta musika-tresnak entregatuz.

Urtero, Pablo Sarasate fundazioaren auditoria bat egiten da, inoren menpekora ez den kanpoko profesional batek prestatua.

Fiskalizazioa auditore batek egin du, eta, era berean, Nafarroako Comptos Ganberaren zerbitzu juridikoen, informatikoen eta administratiboen laguntza bideratu da.

Txostenak bost atal ditu, sarrera hau barne. Bigarrenean, orkestraren funtzionamenduaren deskribapen labur bat egiten da; hirugarren eta laugarrenetan, lanaren helburuaren eta norainokoren berri ematen da, eta bosgarrenean aurkezten dira gure jardunetik eratortzen diren ondorioztapen eta gomendio nagusiak. Gainera, fundazioari buruz kanpoko profesional batek eginiko auditoria biltzen duen eranskin bat aurkezten da.

Eskerrak ematen dizkiegu Pablo Sarasate fundazioko kideei, bai eta fundazioko auditoreari ere, lan hau egin ahal izateko eman duten laguntzaren-gatik.

## II. ORKESTRAREN FUNTZIONAMENDUA

2008an, orkestra sinfonikoak 113 emanaldi eskaini zituen, 38 egitarau ezberdinetakoak. Egitarau horien artean nagusiki honako hauek aipatu behar dira: ziklo-kontzertuak, eskoletakoak, disko-grabazioak eta kontzertu bereziak edo akonpainamenduak.

Horretarako, orkestrak 51 profesorez osatutako plantilla zeukan 2008an, hari-instrumentuen,

zurezko eta metalezko haize-instrumentuen eta perkusio-instrumentuen ataletan banatuak. Horrez gain, concertino-postua bete ohi da, orkestretan gero eta maizago egiten den bezala, programaz programako kontratazioaren bitartez; horrek orkestrari modua ematen dio mailarik altueneko concertino ezberdinekin aritzeko, zeinak beste orkestra garrantzitsu batzuekin ere lanean jarduten baitira.

Kontzertu bakoitzean, beharrezkoa gertatzen da orkestrako plantilla osatzea kasuan kasuko kontzerturako berariaz kontraturiko musikariek, arrazoi ezberdinengatik

- Postu hutsak betetzeagatik.
- Baja, baimen edo bestelako motibo bat tarteko, bertaratu ez diren plantillako musikariak ordezteagatik.
- Obra zehatz bat jotzeko ohiko plantillakoez gain behar diren musikariak lortzeagatik (obra ezberdinetarako behar den musikari kopurua oso aldakorra da, eta kasu zehatz batzuetan, guztira 80-85 musikari baino gehiagokoa izatera irits daiteke).

Programa zehatz baterako kontratatu ohi diren musikari horiei orokorrean "errefortzu-musikari" deritze, eta haien artean hiru mota ezberdinetakoak bereiz ditzakegu:

- Bakarleri bereziak, hari- eta haize-ataletakoak. Zuzendari artistikoak estrategikotzat hartzen dituen eta maila altua eskatzen duten postuetan diharduten musikari osagarriak dira. Oro har, plantillako postu hutsetako batzuk betetzen dituzte. Gehienak beren kasako profesionalak dira, alde zurretik finkaturiko ordainsari batzuekin lan egiten dutenak; hau da, kontzertuetako zuzendariak eta bakarlariek dituzten modu eta kontratazio-baldintzen oso antzekoekin.

- Plantillaren osagarriak. Musikari hauek bestelako lanpostu hutsak, bajak, baimenak eta abar betetzen dituzte.

- Errefortzuak. Musikari hauek berariaz kontratatuak dira orkestraren ohiko plantilla handitzea beharrezkoa denean obra jakin batzuk interpretatu ahal izateko.

Orkestraren arduradunek adierazi digutenez, azken urteotan sistema horri jarraituz egindako kontratuen kopurua honako hau da:

Urtea	Kontratuak
2006	376
2007	524
2008	539
2009 (irailera arte)	304



Kontraturiko pertsonen kopurua txikiagoa da eginiko kontratuena baino; izan ere, batzuetan, errepikatu egiten dira, entseguak asteetan zehar elkarren artetik bereiztearen ondoriozko etenengatik edo elkarren segidakoak ez diren egun lokabebetarako kontratuak izateagatik.

Bestelako kontua dira zuzendari gonbidatuen eta kontzertu-bakarlarien (instrumentu-jotzaileen eta kantarien) kontratazioak. Orkestrako zuzendari artistikoari dagozkio horri buruzko proposamena eta azken erabakia, betiere fundazioaren patronatuak ezarritako gidalerroei jarraituz, zeinak halaber urtero behin betiko programazioa onesten baitu. Artista horien kontratazioa, ia kasu guztietan, beren agenteen bitartez egin ohi da (artistek berek hala exijituta eta sektoreko ohiko praktikaren ildotik), eta Gizarte Segurantzako artisten araubideari lotutako kontratuak kasu bakanen batean baizik ez dira egiten. Ordainsari eta baldintzei dagokienez, izugarritzko aldeak egon ohi dira.

### III. HELBURUA

Nafarroako Comptos Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legearen arabera, eta Parlamentuaren eskaera kontuan harturik,

Pablo Sarasate Fundazioaren (Nafarroako Orkestra Sinfonikoa) kontuen fiskalizazioa egin dugu, honakoa egiaztatzeko:

- Prestaturiko kontuek fundazioaren egoeraren berri adierazgarria ematen duten.
- Eginiko kudeaketaren alderdi nagusiak.

### IV. NORAINOKOA

Finkaturiko helburua kontuan harturik, gure lanak honakoak hartu ditu zeregin nagusi:

- Fundazioaren egoera orokorra berrikustea eta 2008ko auditoria berrikusteko baimena eskatzea.
- Auditoria aztertzea, eginiko lana kanpoko auditorearekin egiaztatuz.
- Kanpoko auditorian aurkezten den informazioa zabaltzeko komenigarritzat jotzen ditugun alderdiak berrikustea.

Lana egin da sektore publikoaren auditoriari dagokionez Espainiako Estatuko Kanpo Kontrolako Organo Publikoen Koordinazio Batzordeak onetsiriko eta Comptos Ganbera honek bere fiskalizazio-eskuliburuan garaturiko printzipioei eta arauari jarraituz.

## V. ONDORIO OROKORRAK ETA GOMENDIOAK

Epigrafe honetan aurkezten ditugu Nafarroako Comptos Ganberak kanpoko auditoria aztertu ondoren eta eginiko lanaren emaitza gisa iritsitako ondorioztapenak.

Honakoak dira eginiko jardueraren datu laburtuak:

Balantzea			
Aktiboa		Pasiboa	
Ibilgetu materiala	290.995,05	Funts berekiak	-363.559,21
Inbertsioak	6.642,73	Epe laburreko zorrak	370.946,57
Zordunak	620.662,66	Hartzekodunak	616.091,73
Inbertsio finantzarioak	8.298,41	Aldizkatzeak	310.585,50
Aldizkatzeak	6.019,05		
Eskudirua	1.205,32		
Guztira	934.064,58	Guztira	934.064,59

Emaitza-kontua.			
Gastuak		Dirusarrerak	
Hornidurak	1.139.931,12	Babesleak	248.100,06
Langileria	3.634.512,52	Dirulaguntzak.	5.063.582,05
Kanpo-zerbitzuak	1.528.674,72	Dirusarrera arruntak	1.062.054,31
Bestelakoak	65.390,54	Bestelakoak	27.282,14
Finantzarioak	21.514,57		
Etekina	10.995,09		
Guztira	6.401.018,56	Guztira	6.401.018,56

2008an, kontuak aurkeztu ziren kontabilitate-plan orokor berriari jarraituz.

Eginiko kanpo-auditoretzak azken urte hauetan aldeko iritzia agertzen du, salbuespen batekin, zeina honela adierazi baitzen idatziz 2008an:

“Fundazioaren 2008ko abenduaren 31ko egoera finantzarioak (363.559,21 euroko funts bereki negatiboak) zalantza iradokitzen du sozietatearen

iraupenari eta urteko kontuetan agertzen diren zenbatekoetan bere aktiboak errealizatu eta pasiboak likidatzeko daukan gaitasunari buruz. Kontu horiek sozietatearen administratzaileek prestatu dituzte, jarduera horrek segituko duelako ustean eta egoera hau behin-behinekoa delakoan, fundazioak bizi duen une ona eta dituen aurreikuspen bikainak bertan jaso gabe.”

Jasotako dirulaguntzak hauexek dira:

Iruñeko Udala	203.190
Nafarroako Gobernua	4.860.392
Guztira	5.063.582

Dirusarrera arruntek guztizkoaren ehuneko 17 egiten dute, eta honakoak kobratzeari dagozkio: sarrerak, abonamenduak eta kontzertuen ordain-sariak.

Baimen egokien ondoren, Comptos Ganberak egiaztatu egin du eginiko auditoretza-lana, eta lan horretatik ateratako ondorioztapenei atxikitzen zaie.

Auditoretzaren osagarri gisa, Comptos Ganberak honako puntu hauek zehaztu nahi ditu:

- Langileria-gastuak:

Langileria-gastuetan jasotakoak dira beren zerbitzuak Pablo Sarasate Fundazioari ematen dizkion pertsonen ordainsarienak eta gizarte-segurantzarenak. 2008ko ekitaldiaren amaieran, 62 pertsona ziren, eta, horietatik, musikariak ziren 51. Fundazioak bere hitzarmen kolektiboa dauka.

Era berean, kontusail honetan sartzen dira plantillaren osagarri, errefortzu eta ordezen gisa egindako kontratazioak: 2008an, 539 kontratu egin

zitzazkion 382 pertsonari, eta guztizko iraupena 3.041 egunekoa izan zen.

- Kanpo-zerbitzuak.

Kanpo-zerbitzuen zenbatekoa dagokie autonomoak diren zenbait profesionali eginiko kontratuei;

Zuzendariak	22
Bakarlariak	31
Hari- eta haize-ataletako bakarlariak	39
Concertinoak	24
Guztira	116

- Entitatearen egoera.

Funts bereki negatiboak dauzkan fundazio bat existitzea inkongruentzia bat da, printzipioz.

Fundazio bat eratzen da fundazio-ondare batekin, zeinak, bestelako dirusarrera batzuekin batera, errenta batzuk sortzen baititu, fundazioa eratu zeneko helburuetara bideratzen direnak.

Hala ere, kasu honetan, fundazioak ez du funtzionatzen bere hornikuntzaren etekinen indarrez, baizik eta erakartzen dituen dirulaguntzen eta baliabideen ondorioz.

Ikuspegi finantzario batetik, fundazioak bere jarduerari eutsi ahalko dio halako epean non urtean-urtean behar adinako dirusarrerak ziurtatuta izanen baititu bere jarduera aurrera eraman ahal izateko eta funts bereki negatiboei aurre egiteko

beraz, orkestraren konturako gizarte-segurantzaren pean egon gabe egiten dira.

Atal honetan sartzen dira zuzendari titularraz gain kontraturiko zuzendariak eta bakarlariak.

Horrela, ba, 2008an kontratu hauek egin ziren:

beharrezkoak zaizkion kredituek sorrarazten dituzten gastu finantzarioak jasan ahal izateko.

Egoera horren aurrean hauxe da gure gomendioa:

\* *Fundazioaren ondare-egoera onbideratzea*

\* *Nafarroako Gobernuak aztertzea ea komeni den ondare negatiboa duen fundazio pribatu batean parte hartzea, dirulaguntzaren bitartez de facto kontrolatua izan daitekeena eta, parte-hartzearekin, nolabaiteko izaera publikoa hartzen duena.*

Txosten hau eman da araudi indardunak ezarritako izapide guztiak bete ondoren.

Iruñean, 2009ko abenduaren 14an

Lehendakaria, Luis Muñoz Garde

